eta andik efiko zelaira eresbatzak jo biar ebala ta etofi giñan. Ango ausunekueri neure txalorik beruenak eta sutsuenak.

Erijotza.

Jauna'ren besuetan il zan «Perutxeta»ko etxekoandria (G. B.) Bere senditar gustijeri euren samiñian lagunduten dautsegu batez be bere seme ta gure aberkide Munitxa anayeri.

Nazkaldija.

Bilbao'tik ikertalditxo bat egiten Lazkano'tar Nemesi.

Gasteiz'etik bere iloba Emile.

Elgoibar'tik, guztiz osatuta, emengo bultziko sugiñ-zartadagaz txarto geldifu zana. Zorijonak berari.

Zarautz'era Izagife 'tar Gerarta, bere emaztiagaz. Neure ondo etofirik bijotzetikuena lenengueri eta zu Gerarta, Zarautz-aldian ondo ibili.

Ekatxa.

Il onen 26'gn. goxeko ordubijetatik irurak arte, ekatx aundi bat ixan zan. Kale gustijak efekak zirudijen eta etxiak urez bete ziran. Oñastafi batek kezulo edo tximinija bat jo ta bota eban.

Basefitafak diñuenez soluetan kalte gutxi egin dau.

JAFALE

GORUNTZ - GAYAK

Eunak, bale-bizafak, zumitz ugaf-gaitzak

Zubiri'tar Bingen

Artekale, 50 BILBAO

Elantxobe.

Sutan geunkan lapikuari begira, egunokaz izan doguzan zeregiñakin adizkide onari, zer geutsen abegi onagaz erantzuteko asti barik ibili gara. Azketsi, zofok ordainduteko ordua be badogu-ta. Baia nundik asiko gara?

Legendikatik, kanaletik.

¡«Eliz-mendi» zorijonekua! Zorijoneko «Eliz-mendi» !Gero ta gero be itxartu zara; noiz edo noiz, buru apaindu ori agertu deuskuzunian. Lofak izan ditu, Akordako, «Gero -arte» zintzuak, baia, ibili ta ibili Kanaleko «Uso zurija, aidian» ikusi dogunian, lofok atsegiñ biurtu jakuz. Orain, *bostok,* Natxjtu, Ibafangelu, Elantxobe, Akorda, ta Kanala'ko aiztatxu bafijak, «EKIN» eko zelaian alkartu garian eskero, aspaldijon gura genduan biribilketia asi biafian gagoz. Bagara? Tira ba

Lafosatxuak, bost ofi daukaz
Kabeliñiak amabi,
«eder zalia zarian ofek
begitu Legendikari».

Zegaitik egon dan ain luzaro ixilik?

Erdi ixileko kontua dogun afen, ixilian, iñortxuri be ez esatekotan zeuentzako bakafik, irakurliak, esango dogu, ortik entzun doguna. Baia, ixo, ixo! Bestela «Txo»ka asten bajaku... Ba, Kanala'k izan daben ixilunia, ez ei da Madrigalegaitik ixan, ez Royo Bilanobagaitik, ezta Balbontiñegaitik be. Granada'ko bizardun, judatar-zale, *Ibayetako* Pefandok, zorgiñ-abesti bategaz liluratu ei eban, Iretargi ederdun iluntzetxu baten, Bermeo'ko Pilatos-etxetik, sorbaldan-befa gitafa andi bat ebala urten ei eban, bateltxu gofi baten sartun, saguzafak ego baltzak edegita artzen eben aixiagaz bakafik, urgora zan gau baten eldu ei zan Kanale'ra, ta ur geldi-geldijan, goyak iruntz-negafetan ziriala, irakufiko dozuen sorgiñ-abesti au abestu ei eutsan:

Anda, ve y dile a tu *mare*
que te guarde, bien guardada,
porque hay almas muy gitanas,
que te van a echar la zarpa...
A..... ay,... a..... ...ay...
A..... ay.

Ordutik,

ufe-ufian daukozan ostrak baño gogofago burua gorde euskun. Baia, Akorda'ko «Gero arte'k» eiztari zufa da-ta, jakin dau nondik jo, Kanala'n bijotzari sotiñ eragiteko eran. Euzkeldun-aizta-anayak gaituzala esan dotseneko, ikitaunak ezgariala jakin dabeneko, euzkeldun-eupadia entzun dabeneko, emen dogu aiztarik edefena, kontulari ta bafitxu.

Esan dauskuena
diñotzugu
guzurtxua balitz
pozago gu.

Elofijoko Miren-alaberi:

Eskafak gutzako izan zenduen afera gozuagaitik, baita abestijak lar goratutiaren idatzi zenduezanagaitik be. Guk zuekandik askotxu ikasita efiratu giñan. Etzarie zuek be abeslari makalak. Ganera zuek abesti bafi-bafijakin zabiltzaze: Guk be bide ofetatik ibilteko asmuak ekafi genduzan Elofio'tik. Eskafak bafiro be.

Txistu gafasika,

gofi, zuri, orlegi, galant eta eder kaian sartu jaku ontxe «Libe» ontzi bafi-bafija. Ontzi ofen ugasabak eta afantzaliak, adiskide zintzuak doguz -ta, bijotz-bijotzetik urte on askotako zorijona ta ugaritasuna opa deutsegu.

Jayotza.

Eiguren'dar Sabiñ ta bere emazte dan Afegi'tar Miren Nekane gure adizkidiak semetxu potolo bat izan dabe, ta ixentzat Pantzezka ezafi deutse. Zorijonak urte on askotan.

LILI-EFEKA

Eunak eta soñeko egiñak

Zeafa'tar Efupin

Tendería 15 Bilbao

Mañari.

Erijotza.

Elexakuak artuta, astelenian il zan Uriarte'tar Josebe «Urekin»go etxandera zafa. Gorpuaren obiraltzia, astarte goxian. notin askok lagunduta, egin zan.

Jaunak zeruan euki begi Josebe emakume on eta zintzua zanaren gogoa. Sendijari, atsekabian bijotzez laguntzen dautsogu.

¡Danok!

Gaur, il onen 4'an, Durango'n ospatuko dan jai aberkoi nagosira, emeko abertzale gustijok (J. I.) juango gara. Bertan abefijaren aldezko egguna igaroteko pozik gagoz-ta; bafa Astarloa andija goratuteko be.

Juan-etofijak.

Bere amaren erijotza dala-ta, egunontan emen aurkitzen da Afa Simeon karmeldar lekaidia.

Getxo'tik etofi ziran Magunazelaya'tar Joseba ta emaztia.

Emen aldi luze bat igarota, Galdakano'ra juan zan Uranga'tar Sabintxu mutikua.

Zaldibar'era.

Igande afatzaldian, Garitaonandia'tar Bitor abade agurgafi ta euzkeltzale zintzo-zintzua zanaren omenez egin zan jai edefera juan gintzazan. Eta antxe, Zaldua'ko elexa pilitian, Garitaonandia zanaren gogo-aldez Agurtza deuna bijotzez otoiztu geban. Ori baño geyago meresi eban Bitor jaunak; geuk beintzat zor andijagorik ba'dautsogu.

Ta afatsaldeko iruretan, Abadiño'ko neska-mutikoen dantzaketa politak ikusteko atsegiña ixan geban; eta eureik txalo askogaz saritubak ixan ziran. Bata, itzaldi edefak egin ebezan iru izlari trebiak be.

Efukizko egintza.

Igasitako asteko barikuan, emeko emakume batzuk, E. A. B.'ko lendakari agurgafija ta Oleaga'tar Jospiñe neskatil abertzale zintzua lagun ebezela, Durango'ko ezpetxian aurkitzen diran abertzaliak ikertu ebezan. ¡Ederto egiña! Atsekabetuak poztutia, efukizko egintza da-ta.

Konprimentu bakua.

Lengo egunian, neska batek mutiko bateri, onan iñotsan:

—Mikeltxu, itxaroik apur baten, efekaue ain arin eta ederto egin dokalako, sabaitik sagar bat ekafi biar duak eta.

Eta mutikuak zoli-zoli erantzun eutson:

—Lau ekafidazuz.

MAÑARIKO

Legendika (Kanala).

Juan-etofijak.

Anburgo ta Glasgo'tik tamalez beteta, amar egun lar ariñegi igaro yakozala-ta, biurtu da etxera, Lobea'ga'tar Miren Jasone, Bastefetxea'tar Bonipagi Arno-Mendiko burdinzori nagusi danen emaztia.

Egun batzuk emen igarota, juan da, Natxitu'ra, Arana'tar Bitor, bere emaztiagaz.

Emen ixan dogu alditxu bat igaroten Bigera'tar Miren Bigoñe, neskatila galanta be.

Aldi txikitxu bat bere gurasuakaz igaro ta, ¡Andra Marijak igaro baño len! juan biar ixan dau Fefole'ra, Afatibel'dar Koldobika mutil gaztiak. Tamalian laguntzen dautzut.

«Ipafa» juan da.

Amar egun Laida'ko ibayan igarota, urten dau Bilbao'ra'ko, «Ipafa», Sota eta Aburto'tar Efamon'en eguras-ur-ontzijak. Aurten iñoiz baño polifagua eretxi deutsagu, geure abefijaren ikufiñagaz apainduta bafu eta inguruak euki ditualako-edo. Emen baño aldi obarik iñun ez ei dabe igaroten. Beti alai. Poztuten gara.

Bosgafena be... mutila.

Bosgafen semia ixan dau, Bilbao'ko Beltran'en osatetxian, Bidarte'tar Miren, Arana'tar Isaka'ren emaztiak. Bere aita ugutzau eben *potentzian* ugutzaua izan da, Pedro Maria ixenaz. Aita-amabitxijak Rementeria'tar Joseba Efamon eta Bidarte'tar Primitiba ixan dira. Neska-mutikotxuok egun ona euki eben, *bolo-bolo* asko jaurti eutsezan da. Anditxuak txarto ibili ziran ala? ¡Ez dot uste! Lau anayatxuak pozik egozan amak afebatxu bat ekafiko eutsela-ta, baña ainbeste mutil artian txarto ixan biarko ebala nezkatila batek-eta, pozik geldifu dira anayatxu bafijagaz. Aita-amak ez dauke tamalik, seme asko dauken gurasuari abegi obiagua egiten dautsiela efiko ta auzo-efiko ama-alabak batez be, dakie-ta. Luis Mari, Filipinas'en yayua ixan afen, bera Bizkaitafa dala sutsu esaten dau: Euzkadi'n jayo dan onek, zer esango ete dau? Nire zorionak guraso bizkofai.

Igandian... nora?

Ogeta amafetik gora goyaz Durango'ra. Kanaleko aldefitxu baterako bai-da gero...! Zaratia egitia lakorik ez dau emen, jentia bizkortuteko. Beste efietako izpafak be agertu biar dabe «EKIN»en gero... (1) ¡Txo!

ELIZ-MENDI

(1) Ori esan, eta orixe beti kontuan euki.—A.

Eleizkixunetarako Argizagizko kandelak

Elexiak aginduta daukazan erakuak

Kandela motak: MAXIMA ta NOTABILI, zigufitasunaren ikufatzdunak, azkenengo aginduen arauz.

Kandela oneikaz CAPITEL GAUNA erabili ezkero, argizagi asko aufeztuten da.

QUINTIN RUIZ DE GAUNA'REN SEMIA

GAZTEIZ. (VITORIA) - ARABA

Beriz.

Eriotza.

Igaro dan astian, azken-laguntzak artu ondoren, il zan Jaungoikuaren besuetan «Ama» basefiko gizona, Afieta'tar Agustiñ. Atsekabean lagunduten deutsegu beren alargun eta sendi gustijari eta irakurle gustijai agindu txiki bat: aita gure bana beren arimearen aldez. G. B.

Zaldibafen.

Amaikatxo euzkotar aldatu ziran igaro dan igandian auso-efi euskalzale onetara efi artan jayo zan gure-erakusle ta idazle zan jaupari agurgafi Garitaonaindia'tar Bitor'en omenez egin ziran jayak gure laguntasun apufakaz indartzera. Pozik etxeratu ziran gustiok bafiro be olako jairik iñun egiten bada juteko pozakin.

Durango'ra.

Poz-aundije dago emengo abertsalien artien gaur efi ortan egongo diren abertzale batzar aundi ofetara aldatzeko eta uste dogu abertzaletasun zaletasun apur bat dauken danak an izango dirala.

Lan Zuzena.

Asteroko onen irakurle gustioi batez efitafai eskari txiki bat egin biafian aurkituten naz; neure goguak lan zuzena izango litzakela uste dabelako, lan au da asteroko au irakurten dozuen gustiok, irakurten dozuenian, apurtu biafian oso onurakofa izango litzakela uste esanik or dabizen gaste zuzenbide gitxiko batzuen eskuetara aldatsia EKIN asteroku au. Neure goguaren eskari au ia betetan dogun ainbat onduen eskari sustraibaku au. Eskefik asko.

B. EDO B.

Ereño.

Juan-etofiak.

Itxas ontzitik etxeratu da atzamafien afain-asur bat sartun da, Beotegi'tar Martiñ.

Baita Gernika'n alditxo bat igaro ta etxian aurkitzen da, Ormaetxea'tar Alesandere, nesketilia.

Bilbao'n ixan dira Gabika-gojeaskoa'tar Fredes, bere alabatxuagaz.

Kobeaga'tar Leone nezkatila liraiña be bai.

Emen bafa be aurkitzen da, efi onetako txaunburu jaunaren anae Jauparia. Ondo etofia.

Eguraldia.

Eguraldi txafak egin ditu igaro dan astian; batez be eguenian, trumoya ta tximistia ugari ixan zan. Afiek etxe batzuetako soruak apurtu ditu, efi onetan be. Auxe tamala!

Dabiltzanak.

Emen aurkituten dira udia igaroten Gernika'tik etofita, Aldekoetxea'tar Kastor bere emazte ta sendiagaz. Ondo etofiak eta Jaungoikuak lagundu deizuela auferantza be olantxe ibilten.

«Ganpe»ri.

«Ganpe»niri aupadaka asi zara-ta, erantzuten dautzut. Txandaka egin biarko dogu. «Jel-orde»k igesi dan igandian idatzi eban-da, ufengo igandian zeu zara.

Jaya ospatutzera.

Deun Bartolo egunian Bedarona'ra juan giñan amesetarik egin eztaigun. Eta bertan egun edefa igaro genduen. Eleizkizun guztiz edefa egin zan. Jaupa abestua Bedarona'ko neskatilak ederto abestu eben. Baita txonitz-edefa be, Deun Bartoloman bizitzia oso ederto asaldu euskula. Eta Bedarona'ko neskatilak Jaupa abestuten asi ziranean, Ea'ko señoritak bafezka asi ziran; baña nik estot uste eurak abestuten asi baziran be obeto egingo ebenik.

ATXOSTEKO

Ibafangelu.

Jayotza.

Leona Monasterio ta Martin Amesti'ri alabatxu eder-eder bat jayo jake, Maria Esperanza ixenakin ugutzau dabela. Besuetan Timoteo Alkorta eta Zeferina Urizar senar emaste bafiak artu dabe. Zorionak guraso ta aita-amabitxieri. Ia umetxu ori euzkeldun zintzua asten dozuen.

Eleiz-deyak.

Batsuek amaitu ta beste batzuk asi. (Aurten bisiesto da izan be-ta). Polikarpo Badiola eta Gregoria Unzueta'renak asi. Amaitu Porfirio eta Beatriz geure efiko nezkatila galantarenak. Irala'ren 8'gn. bustartuko ei dira, J. I. Urte askotako ilargi eztitsua opa dautsuet. Ia ba ontxe! Mutil zarta gazte, bestiak ikusita, bero-bero gabiltzaz. Ufengua norena izango ete da? Aspalditxuon neu be banabil baña... neure efitafak biribil-biribilak emoten daustez-da, ezin dot iñor aurkitu. Ain zafa be enaz... gaztetxua baño...; baña gaurko neskatilak ez dabe basefitafik gura. Itxas-senafa gurago dabe. Bai ba: itxas-senafakaz gaur ofa, bijar ara dabiltzaz... eta. Lengo baten oindiño nezkatila polit batek auxe berau esan eustan: mariñeru bat gurago ebala basefiko aunts bat baño; olan ba, datofen igandean Durango'ra juateko poz-pozik nago ia an emaztegei on-on bat bilatuten dodan ikusteko. ¿Zer daki batek suertia nun izan leyen. (1) «Ekin»au irakurten dozuenian, an ibiliko naz ni... Aurkituko ete dot emen neuretzako moduko bat? Urduri nago ba igande ori ainbat lastefen eldu dedin.

Legendika'ko «Eliz-mendi»ri.

Geure lagun maite: asafe samar zatoz Akorda'ko «Gero arte»k dei -egin dautzulako. Bere deya ontzat artu egizu. ¿Ez al dakizu ur geldia usteldu egiten dala? Ur kofentian ibili ba, osasuna da-ta. Etofi zu be Durango'ra: an alkar ikusiko gara-ta. Buru anditxua euki afen enaz ain itxusia be ta, danok alkafegaz ondo konpondu gaitezan, ezta-baida barik. Gaurko agur danoi.

GANBELABURU

(1) Begija zoli ibilizu baña....., egun ofetan Durango-aldian «afain»-mueta askotxo ixango dozu-ta, ia zeuk nai zeunken lako batek «pikau» biafian, nai etzeunkien besten batek «kosk» egiten dautzun eta bafegafi ibilten zarian gero. Zeure gogokua ezeze, zeuri jaotzun lakua ezpada, efuki ta begirapen barik... uretara bafiro. Ez «loratxuekaz» (politak ixan afen) geyegi liluratu. Kontuz Ganbelaburu!

Bilbao'ko Aurrezki-Kutxa Udaldarra

1907'gn. urtean Udalak iraso eban, berak erantzuteko ta Gobernuak urgazten dauala, oingo lege-arauz.

UME, EMAKUME TA LANGILIEN onerako amaikatxo Gizarte-lankizun sortu dau.

1931'gn. Lotazila 31'an ipiñitako dirutza: **182.450.818'18** lauerleko:
GERORAKOA: **23.354.653'95** lauerleko

LANDOLAK: Estación 3 eta Plazuela de los Santos Juanes. San Anton (aufian)

Aranzibia'tar Lorenzo jaunak

ZALDIBAR'KO BERE MINTEGIJETAN

SALGEI DAUKOZ **LANDARA MUETA EDERAK:**

Ier (pino) enda onenetajkuak, akazia, aretx japondar, eukaliptus sagar ta madari.